



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## PRENTSA-OHARRA

### LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAK ESPEDIENTE BAT IREKI DU EUSKAL ARKITEKTOEN ELKARGOAREN AURKA

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoaren Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Ordezkaritzek sortutako lan-poltsen funtzionamendu-sistema dago ikerketapean.

2015eko uztailaren 24a

Lehiaren Euskal Agintaritzak espediente bana ireki du Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoaren hiru ordezkaritzen aurka. Espedienteak ireki dira Lehiaren Defentsarako 15/2007 Legearen 1. edo/eta 2. artikuluetan xedatutako arau-hausteen zantzuak daudelakoan.

Zehazki, ordezkaritza bakoitzak kudeatutako lan-poltsen sistema ikertuko da, ordezkaritza bakoitzean kidetutako profesionalak bakarrik parte har dezaketelako.

Lan-poltsa horiek lanak esleitzeko zerrendak eta txandak sortu dituzte. Lanak hautekoak izan daitzeke: Eraikinen Ikuskapen Teknikoak (EIT), energia ziurtapenak (EZ) edo proiektuen idazketak edo obren zuzendaritzak.

Ordezkaritzek lan-poltsak kontrolatu eta kudeatzen dituzte.

Dena den, zehapen-espeditente bat irekitzeak ez du esan nahi amaiera dagoeneko erabakita dagoela. Irekitze-datatik 18 hilabeteko epea dago espeditentearen instrukzioa egin eta ebazteko.

Lehiaren Euskal Agintaritza Administrazioiko erakunde autonomo bat da, erakunde-autonomia duena, merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzeko helburua duena, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez.